

Gidabaimenak
Euskaraz

IKASLEAREN ESKULIBURUA

D1 - D
baimenak



Euskadiko Autoeskolen Federakuntza
Federación de Autoescuelas de Euskadi

AURKIBIDEA

1. GAIA DOKUMENTAZIOA	10
ARAU OROKORRAK	10
GIDARIAREN DOKUMENTUAK	10
GIDABAIMENAK	10
IBILGAILUEN DOKUMENTUAK	14
ZIRKULAZIO-BAIMENAK	14
IBILGAILUEN AZTERKETA TEKNIKOA ETA IAT TXARTELA	14
GIDABAIMENA ALDI BATERAKO KENTZEAGATIKO SOROSPEN-ASEGURUA	21
BIDAIAIENTZAKO NAHITAEZKO ASEGURUA (BNA)	21
BESTE AGIRI BATZUK	25
ERREKLAMAZIO-LIBURUAK ETA -ORRIAK	25
IBILBIDE-ORRIA	27
2. GAIA SEINALEAK ETA ZIRKULAZIOA	29
AUTOBUSEI ESPEZIFIKOKI ERAGITEN DIETEN SEINALEAK	29
IBILGAILU JAKIN BATZUENTZAKO SEMAFOROAK	29
ARAU-SEINALE BERTIKALAK	29
BESTE SEINALE BATZUK	30
BIDEEN ERABILERA	31
OHIKO NORANZKOAREN KONTRAKOAN ERABILTZEKO ERREIAK	32
OHI ERREIAK	33
SEINALEZTATUTAKO ABIADURAN JOATEKO ERRESERBATUTAKO ERREIAK	34
ABIADURA	34
GEHIENEKO ETA GUTXIENEKO ABIADURA GENERIKOAK	35
IBILGAILUEN ARTEKO TARTEAK	36
3. GAIA MANIOBRAK ETA LEHENTASUNA	37
ZIRKULAZIOAN SARTZEKO MANIOBRARI DAGOKIONEZ	37
ZIRKULAZIOAN SARTZEN DIREN GIDARIEN BETEBEHARRAK	37
GAINERAKO GIDARIEK SARTZEKO MANIOBRA ERRAZTEKO DUTEN BETEBEHARRA	37
NORABIDEA ALDATZEARI DAGOKIONEZ	38
AURRERATZEARI DAGOKIONEZ	38
AURRERATZEN DUENAREN BETEBEHARRAK	38
AURRERATUTAKO IBILGAILUETAKO GIDARIAREN BETEBEHARRAK	38
AURRERATUA IZANGO DEN IBILGAILUAREN GIDARIAK DAUZKAN DEBEKUAK	39
AURRERATUA IZANGO DEN IBILGAILUAREN GIDARIAK ABIADURARI DAGOKIONEZ DAUZKAN BETEBEHARRAK	39
IBILGETZEEI DAGOKIENEZ	39
GELDITZEA ETA APARKATZEA	39
LEHENTASUNA ESTUGUNEETAN	42

4. GAIA | AUTOBUSEKAKO GARRAIOA

43

AUTOBUSARI LOTUTAKO HAINBAT KONTZEPTU

43

AUTOMOBILA

43

AUTOBUSA EDO AUTOKARRA

43

IBILGAILUEN NAZIOARTEKO KATEGORIAK

44

PERTSONEN GARRAIOA

45

PERTSONEN GARRAIO KOLEKTIBOA

45

ENPRESAREN BETEBEHARRAK

46

BIDAIARIEN BERMEAK ETA ERREKLAMAZIOAK

49

5. GAIA | BIDAIARIEN GARRAIOA

50

ARAUDIA

50

LURREKO GARRAIOEN ANTOLAMENDUARI BURUZKO LEGEA (LGAL)

50

GARRAIOAN ARITZEKO BALDINTZAK

51

DAGOKION BAIMENA LORTZEKO BALDINTZAK

52

GARRAIO-ENPRESEN ETA -JARDUEREN ERREGISTROA

54

GARRAIO-MOTAK

55

GARRAIO-TXARTELAK

56

GARRAIO ERREGULARREI BURUZKO ARAU ESPEZIFIKOAK

56

6. GAIA | AUTOBUSEKAKO BIDE-SEGURTASUNA

60

GIZA FAKTOREA

60

GIDATZE PROFESIONALAREN ESKAKIZUN PSIKOFISIKOAK

60

GIDARIAREN BETEBEHAR BATZUK

60

GIDARI PROFESIONALAREN GAITASUN PSIKOFISIKOETAN

ERAGINA DUTEN FAKTOREAK

61

IBILGAILUAREN SEGURTASUN-ELEMENTUAK

64

SEGURTASUN-UHALAK EDO EUSTEKO BESTE SISTEMA HOMOLOGATU BATZUK

64

EGONKORTASUN-KONTROL ELEKTRONIKOA

64

TRAKZIO-KONTROLA

64

ABIADURA-MUGAGAILUA

64

ENPOTRAMENDUAREN AURKAKO BABESA

65

GIDATZE-SISTEMA AURRERATUAK (ADAS: ADVANCED DRIVER ASSISTANCE SYSTEMS)

65

LARRIALDIETAKO SERBOFRENO ELEKTRONIKOA (BAS)

65

STAR STOP

66

ALDAPAN IRTETEKO LAGUNTZA-SISTEMA (HILL HOLDER)

66

GURUTZALDI-ABIADURAREN KONTROLA

66

ABIADURA-LAGUNTZAILE ADIMENDUNA (INTELLIGENT SPEED ASSIST)

66

GIDARIAREN NEKEAREN DETEKTAGAILUAREN ALERTA

67

LARRIALDIETAKO FRENATZEAREKIN TALKA EGITEKO ABISUA (AEBS)

67

TRAFIKO GURUTZATUAREN ALERTA - RCTA (REAR CROSS TRAFFIC ALERT)

68

ERREI-IRTEERAKO ALERTA ETA ERREIAN MANTENTZEKO LAGUNTZAILEA

68

ANGELU ITSUA DETEKTATZEA - BSD (BLIND STOP DETECTION)

68

TRAFIKO-SEINALEAK EZAGUTZEKO SISTEMA (HEAD UP DISPLAY)

68

ALCOLOCK: IBILGAILUA MARTXAN JARTZEA BLOKEATZEKO SISTEMA	69
GIDARIAREN ALKOHOLEMIA-MAILAREN ARABERA	69
ATZERA-MARTXAKO ETA 360°-KO KAMERA	69
FAROEN KONTROL ADIMENDUNA	69
GERRIKOEN ABISUA PLAZA GUZTIETAN	69
LARRIALDI-DEIAREN SISTEMA - E-CALL	70
LARRIALDIETAKO FRENATZEAREN ABISUA -	
EMERGENCY BRAKING DISPLAY (EBD)	70
APARKATZEKO SENTSOREAK	70
PNEUMATIKOEN PRESIOAREN KONTROLA	71
IBILGAILUAREN BESTE SEGURTASUN-ELEMENTU BATZUK	71
ALBOKO EGONKORTASUNA	71
ERRESISTENTZIA IRAULTZEAN	71
ESERLEKUAK	71
EKIPAJEAK ETA AUTOBUS BARRUKO BESTE OBJEKU ETA ELEMENTU BATZUK	72
AUTOBUSA BALDINTZA TXARRETAN GIDATZEA	72
EURIAREKIN GIDATZEA	72
ELURRAREKIN GIDATZEA	72
NEGUKO ZIRKULAZIOA	73
MURRIZKETEN SALBUESPENEZKO ALDAKETA	74
AUTOBUSEN ESKAKIZUNAK	74
IZOTZAREKIN GIDATZEA	75
HAIZEAREKIN GIDATZEA	75
LAINOAREKIN GIDATZEA	75
GIDATZE EKONOMIKOA ETA INGURUMENAREN KUTSADURA-INGURUABARRAK	76
TELEFONIA MUGIKORRA, ENTZUNGAILUAK EDO AURIKULARRAK ETA	
BESTE SISTEMA BATZUK	76
PANTAILAK ETA MONITOREAK	77
RADARREN AURKAKO DETEKTAGAILUAK ETA AGENTEAK DAUDELA	
ADIERAZTEKO ARGİ-DISTIRAK	77

7. GAIA | AUTOBUSA

78

ANGELU ITSUA. IKUSPENA	78
ANGELU ITSUA	78
IBILGAILUAREN IKUSPENA	78
TRESNEN TAULA	79
SISTEMA ETA OHARTARAZLE ESPEZIFIKOAK	79
ARGIAK	79
AUTOBUSEN GEHIENEN MASAK ETA DIMENTSIOAK	81
ZOLADURAREN GAINEN PRESIOA	81
BIRAKETA-ERRADIOA	82
SEINALEAK, PLAKAK, BEREIZGARRIAK ETA INSKRIPZIOAK	82
NAZIONALITATEAREN BEREIZGARRIA	82
ZERBITZU PUBLIKOAREN PLAKA	82
IBILGAILUEN ALDIZKAKO AZTERKETA TEKNIKOKO BEREIZGARRIA	82
ARRISKUA AURRESEINALEZTATZEKO GAILUA	82
LUZERA HANDIA ADIERAZTEKO PLAKA	83
INGURUMEN-SAILKAPENAREN BEREIZGARRIAK	83
ERREMINTAK, ORDEZKO PIEZAK ETA OSAGARRIAK	84

8. GAIA | ESKOLA-GARRAIOA

85

ESKOLA-UMEEN ETA ADINGABEEN GARRAIOARI BURUZKO ERREGELAMENDUA	85
APLIKAZIO-EREMUA	85
GARRAIO-BAIMENAK	86
ESKOLA-UMEEN ETA ADINGABEEN GARRAIO-MOTA GUZTIEK BETE BEHAR DITUZTEN ARAUAK	86
EZAUGARRI TEKNIKO OROKORRAK	86
EZAUGARRI TEKNIKO BEREZIAK	87
IBILGAILUAREN AZTERKETA TEKNIKOAK	88
ASEGURUAK	88
BEREIZGARRIA	89
LAGUNTZAILEA	89
IBILGAILUEN ANTZINATASUNA	90
IBILBIDEA ETA GELTOKIAK	90
ERABILERA BEREZIKO GARRAIO ERREGULARRAK	90
ERABILERA OROKORREKO GARRAIO ERREGULARRAK	91
GARRAIO PUBLIKO DISKREZIONALAK ETA GARRAIO PRIBATU OSAGARRIAK	91
ARAU KOMUNAK	91

9. GAIA | TAKOGRAFOA

92

TAKOGRAFOAREN XEDEA, FUNTZIONAMENDUA ETA TEKNIKA KONTZEPTUA	92
TAKOGRAFO-MOTAK	92
BEHARTUTAKO IBILGAILUAK	93
JARDUNALDIEN ETA ATSEDENALDIEN SINBOLOAK TAKOGRAFOAN	93
TAKOGRAFOAREN ARAUEKIN LOTUTAKO KONTZEPTU BATZUK	94
GIDATZE-DENBORAK ETA ATSEDENALDIAK	94
GEHIENENKO GIDATZE-DENBORAK	94
GUTXIENENKO ATSEDENALDIAK	95
TAKOGRAFO DIGITALA	97
TXARTEL-MOTAK	97
GIDARI-TXARTELAK	98
640/2007 ERREGE DEKRETUA ALDATZEN DUEN 729/2022 ERREGE DEKRETUAK GIDATZE-DENBOREI ETA ATSEDENALDIEI BURUZ EZARTZEN DITUEN ARAUEN DERRIGORTASUNAREN SALBUESPENAK	100
TAKOGRAFOA ERABILTZEKO ETA INSTALATZEKO BETEBEHARRAREN SALBUESPEN ARRUNTAK (SALGAIK ETA BIDAIARIAK)	100
BIDAIARIEN GARRAIOAN TAKOGRAFOA ERABILTZEKO ETA INSTALATZEKO BETEBEHARRETIK SALBUETSITA DAUDENAK	100
SALGAIEN GARRAIOAN TAKOGRAFOA ERABILTZEKO ETA INSTALATZEKO BETEBEHARRETIK SALBUETSITA DAUDENAK	100

10. GAIA | LEHEN SOROSPENAK**102**

ISTRIPUETAN NOLA JOKATU	102
ZER EGIN BEHAR DA ERRESKATEA AKTIBATZEKO ETA LAGUNTZEKO?	102
BABESTU	102
SEINALEZTATU	102
ARRISKUAK IDENTIFIKATU	102
AUTOBABESTU	102
ALERTA EMAN EDO ABISATU	103
LAGUNDU EDO JARDUN	103
BIKTIMEI DAGOKIENEZ	103
TRAFIKOKOAK EZ DIREN ISTRIPUAK EDO GORABEHERAK	106
GERTA DAITEZKEEN EGOERAK	106

**11. GAIA | AUTOMOBILA –DIESEL–MOTORRA–LUBRIFIKAZIOA
ETA HOZKUNTZA****115**

AUTOMOBILA OSATZEN DUTEN ELEMENTUAK	115
TXASISA ETA KARROZERIA	115
KARROZERIA ZAINTEZA ETA MANTENTZEA	115
BASTIDOREA	115
EKIPO ELEKTRIKOA	116
ESEKIDURA	116
FRENOAK	116
DIREKZIOA	116
TRANSMISIOA	117
ARGIZTAPEN-SISTEMA	117
GURPILAK ETA PNEUMATIKOAK	117
ELIKADURA DIESEL–MOTORREAN	117
AIRE–ELIKADURAKO ZIRKUITUA	118
ERREGAI–IRAGAZKIAK	118
FUNTZIONAMENDU–ZIKLOA	119
ZIKLO TEORIKOA	119
LUBRIFIKAZIO–SISTEMA	120
ERABATEKO PRESIOAREN BIDEZKO LUBRIFIKAZIOA	120
OLIO–IRAGAZKIA	120
MANOMETROA	121
OLIOA HOZTEA	121
KOIPEZTATZE–OLIOAK (EZAUGARRIAK)	122
BISKOSITATE–INDIZEAK ETA GRADU ANITZEKO OLIOAK	122
MANTENTZEAK	122
KARTERREKO OLIO–MAILA EGIAZTATZEA	122
OLIOA ORDEZTEA	123
OLIO–IRAGAZKIA ORDEZTEA	123
KARTERRA KANPOTIK GARBITZEA	123
SAILKAPENA ZERBITZU–BALDINTZEN ARABERA	124
HOZTEA	125
ERRADIADOREA	125
TERMOSTATOA	126

KONTROL-ELEMENTUAK	126
TERMOMETROA	126
SEINALE-ARGIA	127
ZIRKUITU ITXIA	127
LIKIDO HOZGARRIAK	127
MANTENTZE-LANAK	127

12. GAIA | EKIPO ELEKTRIKOA

129

ENERGIA ELEKTRIKOAREN SORGAILUA. ALTERNADOREA	129
ARRANKATZE-MOTORRA	129
BATERIA	130
ALTERNADOREA	132
ERREGULAGAILUAK	132
ARGIZTAPEN-SISTEMA	132
FAROAK ETA PILOTUAK	132
LANPARAK	133
EROALE ELEKTRIKOAK	133
KABLEAK	133
KONEKTOREAK	134
AGINTE- ETA BABES-ELEMENTUAK	134
ADIERAZLE ELEKTRIKO BATZUK	135
ABIADURA-NEURGAILUA	135
AMPEREMETROA	135
ERREGAI-MAILAREN ADIERAZLEA	135
LIKIDO HOZGARRIAREN TENPERATURA-ADIERAZLEA	135
OLIO-PRESIOAREN ADIERAZLEA	135

13. GAIA | TRANSMISIOA, DIREKZIOA ETA ESEKIDURA

137

TRANSMISIOA, DIREKZIOA ETA ESEKIDURA	137
TALDE KONIKO-DIFERENTZIALA	139
TALDE KONIKOA	139
ERREGULAZIO IRRISTAGAITZEKO SISTEMAK - ASR	139
MANTENTZEA	139
ENBRAGEA	139
ABIADURA-KAXA	140
TALDE KONIKO-DIFERENTZIALA	140
DIREKZIOA	141
BOLANTEA ETA DIREKZIO-ZUHAITZA	141
DIREKZIO LAGUNDUA	142
MANTENTZEA	142
ESEKIDURA	142
MALGUKIAK	143
MOTELGAILUAK	143
BARRA EGONKORTZAILEA	144
ESEKIDURA-MOTA BATZUK	144

14. GAIA | FRENOAK ETA GURPILAK

146

FRENOAK ETA GURPILAK	146
FRENOAK	146
DANBOR-FRENOAK	146
DISKO-FRENOAK	147
FRENATZEKO ELEMENTU OSAGARRIAK	149
FRENO OSAGARRIAK	151
ATZERAGAILU HIDRAULIKOAK (HIDRODINAMIKOAK)	151
MOTOR-FRENOA IHESAN ETA INJEKZIO-ETENA	152
ATOIRAKO FRENOAK	152
BLOKEOAREN AURKAKO ABS SISTEMA	153
MANTENTZEA	153
GURPILAK ETA PNEUMATIKOAK	155
ZATI METALIKOA	155
ESTALKIA	156

15. GAIA | ERREPASO-TESTAK

163

ZIRKULAZIOAN SARTZEKO MANIOBRARI DAGOKIONEZ

ZIRKULAZIOAN SARTZEN DIREN GIDARIEN BETEBEHARRAK

Gidariak **aldeaz aurretik ziurtatu** behar du (beste pertsona baten argibideei jarraituz, hala behar izanez gero) beste erabiltzaileei arriskurik sortu gabe egin dezakeela maniobra hori, beste ibilgailuei **pasatzen utziz** eta haien posizioa, ibilbidea eta abiadura kontuan hartuz, eta dagozkion **seinaleekin ohartaraziko** du.

GAINERAKO GIDARIEK SARTZEKO MANIOBRA ERRAZTEKO DUTEN BETEBEHARRA



BETEBEHAR OROKORRA

Zirkulazioan sartzen diren gidariak egiaztatzeko eta pasatzen uzteko betebeharra duten arren, **gainerako gidariak, ahal den heinean, erraztu egingo dute** maniobra hori.



BETEBEHAR BEREZIA

Zirkulazioan sartu nahi duen ibilgailua **seinaleztatutako geltoki batetik** abiatu den **garraio kolektiboko** ibilgailu bat bada, gainerako gidariak **behartuta daude** hari maniobra erraztera.

BETEBEHAR ZORROTZAGOA

Herri barruan, garraio kolektiboko ibilgailuen (autobus, tranbia...) zirkulazioa errazteko, gainerako ibilgailuen gidariak hau egin beharko dute:

- Ahal duten guztietan, **alborantz desplazatu** edo abiadura murriztu, betiere arriskurik ez dagoela ziurtatu ondoren eta behar bezala seinaleztatuz.
- Beharizanez gero, **gelditu**, autobusek seinaleztatutako geltokietatik irteetan martxan jarraitzeko maniobra egin ahal izan dezaten.



Gainerako ibilgailuen gidariak autobusei zirkulazioan sartzeko maniobra errazteko betebeharra duten arren, garraio kolektiboko ibilgailuen gidariak berdin-berdin daukate istripu-arriskua ekiditeko beharrezko neurriak hartzeko betebeharra. Hortaz, aurrez abisatu behar dute, norabide-adierazleen bidez, ibilgailua berriz ere martxan jarri nahi dutela.

KASU BEREZIA. DESPLAZAMENDURIK GABE MARTXAN HASTEA

Ibilgailu bat bigarren ilaran geratuta dagoela martxan hasten bada (oso ohikoa izaten da hori, batez ere hiriko garraioko autobusetan), nahiz eta aurrerantz hasi, desplazamendurik gabe, gidariak behar bezala seinaleztatu beharko du martxaren hasiera, ustekaberik ez emateko hurbiltzen ari diren beste gidari batzuei. Martxan hasi eta berehala, kendu egingo du seinaleztapena.

NORABIDEA ALDATZEARI DAGOKIONEZ

Ibilgailu baten gidariak eskuinera edo ezkerretera biratu nahi badu, **ziurtatu behar du** (A-Atzerailsplua-), kontrako noranzkoan datozen ibilgailuen abiadura eta distantzia kontuan hartuta, maniobra arriskurik sortu gabe egin dezakeela, eta hala ez bada, ez du maniobra hori egingo; maniobra egin aurretik, behar adinako denboraz ohartarazi (S-Seinaleztatu-) egin behar die bere atzean zirkulatzen ari diren gidariei.



Ibilgailuaren dimentsioengatik edo justifikatzen duten beste arrazoi batzuegatik ezin bada norabide-aldaketa egin oro har xedatutakoa hertsiki betez, gidariak beharrezko neurriak hartu beharko ditu maniobra hori inolako arriskurik gabe egiteko.

AURRERATZEARI DAGOKIONEZ

AURRERATZEN DUENAREN BETEBEHARRAK

Aurreratzen duen ibilgailuak segurtasunez egin ahal izateko behar besteko **albotarte** utzi beharko du.

Herritik kanpo oinezkoak, animaliak, bi gurpileko ibilgailuak edo animaliek tiratutako ibilgailuak aurreratzen direnean, maniobra egin beharko da galtzadako ondoko erreieren zati bat edo erreia osorik okupatuz, betiere aurreratzeoko beharrezko baldintzak badaude; nolahi ere, albotarte ez da 1,50 metro baino txikiagoa izango.

Aurreko paragrafoan aipatu ez den beste ibilgailuren bat aurreratzen denean, edo herri barruan aurreratzen denean, ibilgailuaren gidariak **alboko segurtasuntarte bat utziko** du, abiadurakiko eta galtzadaren zabalera eta ezaugarriekiko proportzionala.

Ziklo bat, ziklomotor bat edo haien talde bat aurreratzeo asmoa duen ibilgailuaren gidariak ondoko edo kontrako erreieren zati bat (edo, hala badagokio, galtzadaren zati bat edo galtzada osoa), eta gutxienez 1,5 metroko segurtasun-zabalera gorde beharko du.

Ziklo bat, ziklomotor bat edo haien talde bat aurreratzeo asmoa duen **ibilgailuaren gidariak** ondoko edo kontrako erreieren zati bat edo errei osoa okupatu beharko du aurreratzeo (edo, hala badagokio, galtzadaren zati bat edo galtzada osoa), eta gutxienez 1,5 metroko segurtasun-zabalera gorde beharko du, **salbu eta galtzadak errei bat baino gehiago baditu noranzko bakoitzerako, kasu horretan guztiz aldatu beharko baitu beste erreira**. Debekatuta dago kontrako noranzkoan zirkulatzen ari diren txirindulariak arriskuan jarri edo oztapatuz aurreratzea, baita bazterbidetik zirkulatzen ari badira ere.

AURRERATUTAKO IBILGAILUETAKO GIDARIAREN BETEBEHARRAK

Gidariak, atzetik datorren beste batek aurreratzeo asmoa duela ikusten badu, **honako hau egin behar du**:

- **Galtzadaren eskuineko bazterretera hurbildu** behar du, salbu eta ezkerretera biraketak egiten direnean edo norabidea ezkererantz aldatzen denean edo alde berean gelditzen denean; halakoetan, ahalik eta gehien hurbildu behar du ezkerretera, baina kontrako noranzkoan zirkula dezaketen ibilgailuen martxa oztopatu gabe.

AURRERATUA IZANGO DEN IBILGAILUAREN GIDARIAK DAUZKAN DEBEKUAK

Aurreratua izango den ibilgailuaren gidariak ezingo du:

- Abiadura handitu.
- Aurreratzea eragozten edo zailtzen duen maniobrarik egin.

AURRERATUA IZANGO DEN IBILGAILUAREN GIDARIAK ABIADURARI DAGOKIONEZ DAUZKAN BETEBEHARRAK

Aurreratzeko maniobra hasi ondoren, gidariak **murriztu egin beharko du** bere ibilgailuaren abiadura, baldin eta egoerak arriskua sortzen badu berarentzat, maniobra egiten ari den ibilgailuarentzat (aurreratzen ari denarentzat), kontrako noranzkoan zirkulatzeko ari direnentzat edo bidearen beste edozein erabiltzailerentzat.

Nolanahi ere, aurreratzen ari den gidariak argi eta garbi erakusten badu maniobran atzera egin duela eta murriztu egiten badu bere abiadura, **aurreratu nahi den ibilgailuaren gidaria ez da abiadura murriztera behartuta egongo**, baldin eta horrek zirkulazioaren segurtasuna arriskuan jartzen badu, eta behartuta egongo da aurreratzen ari zen gidariari bere erreira itzultzen erraztera.



IBILGETZEEI DAGOKIENEZ

GELDITZEA ETA APARKATZEA

KONTZERTUAK

GELDITZEA: Ibilgailu bat bi minutu baino gutxiagoz ibilgetzea, gidariak ibilgailua utzi gabe.

APARKATZEA: Geratuta edo geldituta ez dagoen ibilgailu bat ibilgetzea

NON EGIN BEHAR DIRA

HIRIARTEKO BIDEETAN (errepide arruntak, automobil-bideak barne): Ibilgailua hiriarteko bideetan gelditu edo aparkatu behar denean, galtzadatik kanpo egin beharko da beti, galtzadaren eskuinaldean, bazterbidearen zati ibilgarria libre utziz.

AUTOBIDEETAN ETA AUTOBIETAN: Berariaz horretarako prestatutako zonetan bakarrik.

HERRI BARRUKO BIDEETAN (HIRI BARRUKOAK ETA ZEHARBIDEAK): Hiri barruko bideetan, galtzadan edo bazterbidean gelditu edo aparkatu behar denean, eskuineko ertzetik ahalik eta hurbilen jarri behar da ibilgailua; nolanahi ere, noranzko bakarrek bideetan, ezkerreko aldean ere utzi ahal izango da.



IBILGAILUAREN KOKAPENA

1. Gelditzeko eta aparkatzeko, galtzadaren ertzarekiko paraleloan jarri behar da ibilgailua.
2. Gidariak, ibilgailua gelditzen edo aparkatzen duenean, libre dagoen gainerako espazioa ahalik eta ondoen erabiltzeko moduan utzi behar du.
3. **Gidariak, bere postua uztean**, arau hauek bete beharko ditu, bera ez dagoenean ibilgailua ez dadin mugimenduan jarri:
 - a) Motorra gelditu eta arrankatze-sistema deskonektatu; eta, ibilgailutik aldentzen bada, behar diren neurriak hartu beharko ditu, ibilgailua bere baimenik gabe erabiltzea eragozteko.
 - b) Aparkatzeko freno emanda utzi.
 - c) Abiadura-kaxa duen ibilgailu batean, aldapa batean malda gora badago, lehenengo martxa sartuta utzi, eta malda behera badago, atzera-martxa; edo, bestela, aparkatze-posizioan utzi (abiadura-kaxa automatikoa badu).
 - d) **Aldapa handi batean** gelditu edo aparkatzean, honako hauetako gidariak:
 - 3.500 kg-tik gorako GMBa duen ibilgailua
 - **Autobusa**.
 - Ibilgailu-taldea.



Aipatutakoaz gain, **gurdarria jarri behar da, altxagarriak erabiliz** (ez da erabili behar harririk edo berariaz horretarako sortua ez den beste ezer), edo, bestela, gurdarria bat espaloi-zintarriaren kontra jarritz: ibilgailua malda gora badago, gurdarria galtzadaren erdira begira; malda behera badago, galtzadaren kanpoaldera begira.

Altxagarriak, kendu egin behar dira bidetik, berriz abiatzerakoan.

DEBEKATUTA DAGO GELDITZEA ETA APARKATZEA:

- a) **Ikuspen urriko** bihurtze eta sestra-aldaketetan eta inguruetan.
- b) **Tunelatan, azpiko pasabideetan** eta **"Tunela"** seinalea duten **bide-tarteetan**.
- c) **Trenbide-pasaguneetan, txirindularien pasabideetan** eta **oinezkoen pasabideetan**.
- d) Erabiltzaile jakin batzuen zirkulaziorako edo zerbitzurako bakarrik erreserbatutako erreetan edo bide-zatietan.
- e) **Bidegurutzetan** eta haien inguruetan, beste ibilgailu batzuei biratzeko zailtasunak sortzen bazaizkie, edo, hiriarteko bideetan, ikuspen ezagatik arriskurik sortzen bada.
- f) **Tranbien errailen** gainean edo horietatik hurbil, tranbiaren zirkulazioa oztopatzeko moduan.